



Joan Mari FORREALDAI

## Integrazioaren premia

Hauteskundeei buruz zerbait idazteko eskatu didate. Bapatean, eta inpresioen mailan idazten dut. Azterketa eta frogabide berezirik gabe. Ez dut, horregatik, ondorio orokorrik eta definitiborik ateratzeko batere asmorik, ez eta ahalmenik. Aintzin-ohar hauen argitan ulertu behar dira, beraz, notatxo hauek. Asmo bakarra dute, azter-pista baten garrantzia azpimarratzea, integrazioaren premia alegia.

Esandakoagatik bada, hauteskundeen analisisiei buruz ez naiz murgilduko ni ur handitan. Atera diren azterketak ez ditut irakurriak, hasteko. Bat edo beste ikusi dut, alderdi politikoen egunkaritan emanak. Baina horiek ez dute piperrik balio, apologetiko hutsak bait dira. Kuriosoak: horien artean ez dut galtzailerik antzeman. Denak pozik, kontentu, irabazle. Hondamendua izkutatu ezin izan duten bakarrak, ematen du UCD eta PCE izan direla. Gainerako guztiak, Euskadin behintzat, pozik. Zer esanik ez PSOE, baina baita PNV, HB eta EE. PSOERI ez zaio arrazoirik falta, aitor dezagun. Baina gainerakoei? Botuak gehitzea gauza bat da, eta oso beste bat alderdia bera irabazten ateratzea. Areago Euskal Herria

ateratzea irabazten.

Dena den, politikoen periodikuetan agertu dituzten poz eta garaipen-deklarapen horietatik urrun ikusi dut nere burua. Eta nago niri bezala beste euskaldun askori gertatu izan zaiola. Pozaren ahogozoa ez baino dezepzioa izan da nere sentipen nagusia. Dezepzioa eta deslilurapena.

Ez dakit nik zergatik, agian desioak errealitate bezala jotzen ditugulako edo beste arrazoiren batetik, baina botu abertzalea alde handiz ugariegoa espero (edo nahi?) nuen nik. Datuek, aldiz, besterik erakutsi digute. Euskadi autonomikoa eta Nafarroa batean hartzen baditugu, botu abertzalea botu «españolista»ren azpitik aurkitzen dugu. Abertzaleak, %49; eta besteak %51. (El País egunkariak (82.10.30) atera zituen xifren arabera atera ditut portzentaiak). Euskadi autonomikoa bakarrik kontuan hartzen badugu, oster, botu abertzaleak %56,5 suposatzen du, eta besteak %43,5.

Esan dezadan izki txikit, besterik gabe EAJ-HB-EE alderdiei emandako botua abertzaleztat jotzea, eta PSOE-UCD/AP-EPK-CDS alderdiei



emandakoa «espainoltzat» jotzea, ximpleegi dela, sinplifikazio bat ere bai, badirela bestelako faktore anitz (langabezia aipatzen dute askok orain) tarteko. Sinplifikazio hau beharbada jutzitziaren aurka doake, baina azken baten errealitatearen lerro nagusiak hobeki antzemateko abantaila da.

Hauteskunde hauek abertzale/ez-abertzale parametrotan aztertuz, eta gorago emandako xifrak egiazkoak badira, horrek denak ispilatzen duen Euskal Herria ez da nere gustokoa. Ikaratzen nauen erdibiketa somatzen dut nik hor. Ez ote bi Euskal Herri? Ez ote bi komunitate? Bitan banatzen den, edo eta bana daitekeen Euskal Herri horixe litzateke gure etorkizuna hondatzeko biderik aproposena. Sinesturik nago Euskal Herria horrela erdibitzea, gure herriari etorkizuna ukatzea dela.

Euskal alderdientzat alarmargi gorriak piztu direlakoan nago. Arrisku handiak ditu botu-joeira horrek, botu hori nork eta non ematen den kontuan edukitzeen bada batez ere. Oker ez banago, botu «espainolista» hori, hein handi batean, inmigrazioari zor zaio, hots, gure herrian integartzeko gogorik edo aukerarik izan ez duen jendetaria horri. Bestalde, botu «espainolista» horrek Nafarroan eta Araban Gipuzkoan eta Bizkaian

baino munta handiagoa du. Etorkinik gabe eta Araba eta Nafarroa kanpoan utzita Euskal Herririk nahi ez dugunontzat, ezin, ba, uka kezkarri gertatzen ez denik botu-joeira honek adierazi nahi duena, edo nahiago bada, adierazi nahi lezakeena. Arazoari lehenbailehen heldu beharko zaio, beldur bait naiz zenbait partiduri erdibiketa hau errentagarri ez ote zaion gertatuko. PSOEk hauteskunde hauetan berauetan egin jokua esan-guratsua da, ez ala?

Hauteskunde hauen datuen argitan sekula baino urgenteagoa da integrazioaren arazoa plaza-ratzea. Kontzientziatze-ekinaldi bat muntatu behar da, problematika kaleratu behar da, inkesta baten bidez Euskal Herriko jendetaria ezagutu behar da, integrazioaren bideen eta helburuan eztabaida-sail sistematikoa programatu beharko litzateke.

Integrazioaren arazo hau aintzat hartu eta serioan planteatzen ez bada, jai dugu.

Joan Mari TORREALDAI «Jak-in» aldizkariaren zuzendaria da.